

Covid: COVID-19aren aurrean ahulak diren adinekoei laguntzeko sarea



Komunikazioa eta
informazioa



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa

COVID: COVID-19aren aurrean ahulak diren adinekoei laguntzeko sarea

Biztanleriaren zahartzea eta bizi itxaropenari buruzko datuak direla eta, familiek zailtasunak dituzte adineko senitartekoak zaintzeko. Pertsonen bizitza pertsonal eta profesionala bateragarri egitea da proiektuaren helburua —batez ere adineko senitartekoen ardura beren gain hartzen duten emakumeen kasuan—, bai eta bakarrik bizi diren adinekoei laguntzeko babes sare komunitarioak sortzea ere.

COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz, elikagaiak eta botikak erosteko, elkarrizketan aritzeko eta oinarrizko beste premia batzuk betetzeko zailtasun handiak dituzten milaka adineko kaltebera daudela ikusi dugu. Hiru egunetan, COVID-19aren ondorio sozialak arintzea ahalbidetuko zuen konponbide baten lehen bertsioa diseinatu genuen, eta 2020ko martxoaren 17an plazaratu genuen, COVIDA izenarekin.

COVIDA mugikorrekotik aplikazioa da, adinekoen eta boluntarioen artean belaunaldiarteko laguntza sarea sortzea xede duena, eguneroko gestioetan laguntzeko; hala, laguntzarako baliabide integrala eskaintzen du. Baliabide hori mugikorrekotik doako aplikazio eskuragarriaren bidez jarri dugu familien eta adinekoen eskura. Laguntzak eta zerbitzuak aplikaziotik bideratzen dira. Beraz, eskalagarritasun, efizientzia eta inpaktu sozial handiko konponbidea da.

Aplikazioak boluntarioak egiaztatzen ditu, laguntzen koordinazioa bideratzen du eta euskarri zerbitzua eskaintzen die parte hartzaile guztiei. Boluntarioek zer alertari erantzun dieten erabaki dezakete, euren prestasunaren eta hurbiltasunaren arabera. Gainera, eten digitala murrizte aldera, adinekoek harremanetarako telefono zenbaki batera deitzeko aukera dute, aplikazioa erabiltzeko laguntza jasotzeko. Gainera, telefono horretatik alertak ere bidaltzen zaizkie, smartphonea erabiltzeko aukerarik ez badute.

Proiektua 2020ko martxoan jarri zen martxan, eta ordutik 3.000 adinekori baino gehiagori eskaini diegu laguntza eta arreta estatu mailan, 1.500 boluntario baino gehiagoren eskutik. Gaur egun, Indian ere plazaratu dugu zerbitzua (Jyesta.app) doan, ARK (Act of Random Kindness) GKEarekin batera, pandemiaren ondorio sozialak pairatzen dituzten adinekoei laguntzeko sarea

sortzeko. Abuztuan hasi ginen Indian zerbitzua eskaintzen, eta 70 adineko ingururi ematen diegu arreta.

Adinekoek, batez beste, 5etik 4,7 puntuko balorazioa egin dute zerbitzuaz, eta segurtasunari 5etik 4,61 puntu eman dizkiote. Boluntarioen batez besteko balorazioa 5etik 4,25 puntukoa da segurtasunari dagokionez, eta 4,27 puntukoa zerbitzuaren kasuan.

1. Erakunde sustatzaileak

KUVU HOMESHARING SL
SQUAREET LABS SL

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Ekimenaren xede taldea adinekoak dira, haiena baita profilik kalteberena. Hainbat mailatako laguntza behar izaten dute, bakoitzaren egoeraren arabera. Adineko emakumeena da, hemen ere, onuradunaren profil espezifikoak.

Bestalde, haien egoera ekonomikoa dela eta, edo beste arrazoi batzuk medio, adineko senitartekoen ardura beren gain hartu behar duten familiei ere erreparatzen diegu. Profil horretan ere emakumeak nabarmentzen dira, haiek baitira, kasurik gehienetan, adineko senitartekoei laguntza ematen dietenak.

4. Lurralde eremua

Nazioartekoa

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Belaunaldiartekoa, COVID-19a, boluntariotza, laguntza, bakardadea, digitalizazioa

7. Helburuak

Helburu orokorra: familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzea adineko pertsona baten ardura duten familiei, eta, horrez gain, bakarrik bizi diren adinekoek laguntzeko sareak sortzea. Emakumeek eta gizonek aukera berdinak izan ditzaten lehenetsiko da, bizitzako, laneko eta familiako eremu guztietan garatzeko.

Berariazko helburuak:

- Adineko senitartekoak zaintzen dituzten pertsonei kontziliazioan laguntzea, eta, horretarako, adinekoen eta boluntarioen artean gizarte laguntza sarea sortzea.
- Adinekoei laguntzako baliabide integrala eskaintzea, hainbat arlotan laguntza jaso dezaten; hala, haien bizi kalitatea eta zaintzaileena hobetuko da.
- Pertsonei ongizatea eta bizi kalitatea eskaintzea; adinekoen kasuan, gizarte laguntza jasoz, eta zaintzaile diren familien kasuan, lehenago ez zituzten laguntzak jaso dituzten pertzepzioa hobetuz.
- Pertsonarik zaurgarrienen artean dagoen eten digitala murriztea, erabilerraza den eta adin guztietako jendearentzat eskuragarria den aplikazio teknologikoa erabiliz.

8. Metodologia

Proiektuaren bidez, premiazko mekanismoak jarri dira martxan bakarrik bizi diren adinekoei eta adineko senitartekoak zaintzen dituzten pertsonei arreta emateko. Hala, adinekoen arretarako zerbitzuak bermatu egiten du adinekoek norbait izango dutela ondoan eguneroko enkargu batzuetan laguntzeko eta bakardade handiko momentuetan lagun egiteko.

Plangintzaren fasean, Lean metodologia erabili dugu gutxieneko produktu bideragarriak garatzeko, horiek erabiltzaileekin batera landu eta balioa erantsiko duten funtzionalitate berriak garatu ahal izateko. Fase horretan, COVID-19aren ondorioz sortutako beharrian nagusietan sakondu dugu, premiazko laguntzak proposatzeko aldera.

Diseinuaren fasea proiektuaren onuradun izango diren pertsonen ondoan eraman dugu aurrera, haiek baitira beren beharrak ondoen ezagutzen dituztenak eta horiei erantzun egokia nola eman adieraz dezaketenak. Hori dela eta, produktua azken erabiltzaileengandik hurbil diseinatu dugu.

Era berean, elkarten arteko harremanak sustatu ditugu boluntarioak erakartzeko. GKE hauek lagundu diote COVIDA ekimenari: Itxaropen Telefonoak, Alares fundazioak eta SGAEk. Halaber, hainbat komunikabidek eta erakunde publikok zabaldu dute proiektuaren berri. Bestalde, Googlek eta Regula Forensics-ek baliabide teknologikoen alderdian lagundu dute. Gainera, Cobas Asset Management-eko langileek dohaintza egin dute ekimena zabaltzeko.

Proiektuaren garapenari dagokionez, aplikazioa azkar garatu dugu, egoera premiazkoa zelako. Ondoren, bertsio berriak garatu eta aldatu ditugu, eta 10 iteraziotik gora egin ditugu erabiltzaileengandik ikasiz.

Aplikazioa Android eta iOS sistema eragileetako kanaletan plazaratu dugu, eta onuradunak erakartzeko kanpainak abiarazi ditugu —proiektuak iraun bitartean egongo dira martxan—. Gainera, adinekoei laguntzen dieten erakundeak koordinatu ditugu, zerbitzuan alta eman eta abar. Gaur egun, esku hartzearen aurreko galde sortak txertatzeko lanean ari gara. Horien bidez, bizi kalitateari eta orain arte jasotako laguntzei buruzko pertzepzioaren berri jasoko dugu.

Bestalde, boluntarioak koordinatzeaz arduratzen gara, eta luzaroan parte har dezaten sustatzeko pizgarriak ezartzeko lanean ari gara. Hala, laguntza eskatzeko bidaltzen diren abisuei erantzuten zaiela ziurtatzen dugu, hau da, adinekoei eguneroko zereginetan laguntzeko zerbitzuak eskaintzen direla, erosketak egiteko, farmaziara joateko eta abar, eta baita aurrez aurre edo telefonoz lagun egiteko zerbitzuak ere.

9. Alderdi berritzaileak

Aukera berdintasuna: teknologia erabiltzen dugu irtenbide eskalagarria lortzeko, baina aldi berean, adinekoekiko eten digitalaren ondorioak saihesten ditugu pertsona guztientzako kanal inklusiboak sortuz, teknologia zenbateraino erabiltzen duten kontuan hartu gabe.

Eskaripeko sistema: aplikazio mugikorraren erabilerari esker, laguntzak modu eraginkorrean kudeatu ditzakegu Estatuko autonomia erkidego guztietan, eskaripean eta denbora errealean.

Abisuak berehala jakinarazteko sistema erabiltzen dugunez, norbaitek abisua ematen duen une berean jakinarazten zaie hurbil dituen boluntarioei (ezarritako kilometro kopuru baten erradioan daudenei).

Informazio zentralizatua: API azpiegitura batean eraikitako webgunea garatu da, eta baliabide horrek datuekiko interaktibitatea eta laguntzak kontrolatzea ahalbidetzen du. Plataforma honek ez du beste sistema batzuekin integratu beharrik, eta erakunde askori aukera eman die euren eremu geografikoetan laguntzak kudeatzeko profilak edukitzeko.

Auzoaren kohesioa: hurbiltasun printzipioak txertatu ditugu aplikazioan, hurbiltasunean oinarritutako laguntzak sustatzeko eta, horrela, auzoetan belaunaldiarteko harremanak bultzatzeko.

Segurtasuna: Regula Document Reader SDK softwarea txertatu dugu, Regula Forensics-ena. Horri esker, boluntarioa identifikatzeko dokumentuak egiaztatu ditzakegu erregistroaren lehenengo etapan. Boluntarioa egiaztatuta, zerbitzu segurua bermatzen diegu erabiltzaileei.

Egiaztapen sistema: boluntarioa egiaztatzeke sistema erantsi dugu, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen aurrean laguntza ematea bideratzeko eta, aldi berean, adinekoei berme handiagoa eskaintzeko iruzurraren aurkako babes gisa.

Belaunaldien arteko harremanak: gazteak adinekoei laguntzeko boluntario gisa aritzea sustatu dugu bereziki. Hala, Kuvuren oinarritzko printzipioetako bat sustatzen dugu: belaunaldiarteko harremanak.

Osasun arloko prebentzioa: koronabirusaren aurreko prebentzio neurriak ezarri ditugu, bai eta jarduteko protokoloak ere jarduera multzo guztietan, osasunaren arloan segurtasun bermerik onenak eskaintzeko.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Jardueraren ebaluazioari dagokionez, orain arte gauzatutako ekintza nagusiak eta aurreikusita ditugunak azalduko ditugu jarraian.

Gauzatu direnak

Hasieran aplikazioaren garapena oso erraza izan zen, eta abisuak bidaltzeko eta horiei erantzuteko erabili zen. Hortik ezin genuen datu askorik atera, baina ez zen lehentasuna, egoera premiazkoa baitzen.

Aurrera egin ahala aplikazioa hobetzen joan gara, eta eragina neurtzea gakoetako bat izan da zer datu mota lortu behar genituen eta horiek nola lortu zehazteko.

Hasierako eragina neurtzeko ereduak datu hauetan zegoen oinarrituta:

- Plataforman dauden erabiltzaileen kopurua eta haien autonomia erkidegoa.
- Astean bidaltzen diren abisuen kopurua eta orain arteko guztizkoa.
- Abisuei emandako erantzunen kalitatea eta abisu guztiei erantzun ote zaien.

Neurketa horietatik gehienak plataformatik eskuratu ahal izan ditugu zuzenean, baina batzuk lortzeko lekukotzak eta erakunde laguntzaileen erregistroak ari gara erabiltzen.

Hori dela eta, zerbitzua eta segurtasuna balioztatzeko metodoa ezartzea izan zen lehen neurrietako bat, laguntza sarearen alderdi horiek erabakigarriak baitira. Balioztapen bakoitzean pertsonak iruzkin bat sor dezake informazio zehatza lortzeko. Emandako zerbitzu bakoitzeko ebaluazio bat jasotzen dugu.

Aurreikusita daudenak

Urrirako garatu eta plazaratu nahi dugun bertsio berrian eragina neurtzeko sistema berria ezarri nahi dugu, gizarte eraginaren emaitzak sakontasun handiagoz ebaluatu ahal izateko.

- Aplikazioa erabili duten adinekoen kopurua.
- Eguneroko zereginetan laguntza jasotzeko eta laguna ondoan izateko asmoz aplikazioa erabili duten adinekoen ehunekoa ebaluatzea.
- Aplikazioa inguruko beste pertsona batzuekin eta boluntarioekin komunikatzeko eta hitz egiteko kanal gisa erabili duten adinekoen ehunekoa ebaluatzea.
- Aurreko egoerarekin alderatuta adinekoak bizi kalitatean izan duen hobekuntza ebaluatzea (Fumat eskala, batez ere bi arlori dagokienez: pertsonen arteko harremanak eta ingurunearen parte izatearen pertzepzioa).
- Aurreko egoerarekin alderatuta, laguntza eskura izatearen sentimendua zenbateraino areagotu den ebaluatzea (MSPSS eskala eta EMAS eskala).

Ebaluazio hori egiteko galde sorta berriak ezarriko ditugu, nagusiki. Hala, alderdi horien hasierako oinarritzko neurketa egingo dugu, eta gero aldizkako ebaluazioak,

bilakaera ikusi ahal izateko. Era berean, «bizitza istorioak» jaso nahi ditugu, sortutako gizarte eragina modu kualitatiboagoan ebaluatu ahal izateko.